



Espediente zk.: 2021SZUZ0008 Erreg. data:2021/03/12
Erreg. zk. : 004774
Gaia: 2021. DIRULAGUNTZA - HITZA
Eskatzailea: OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK SL NAN(IFK): B20811428
Kokalekua: ERRETERIA

**ERRETERIAKO UDALA ETA OIARTZUALDEAKO HEDABIDEAK S.L.-REN
ARTEKO HITZARMENA ZUZENENKO DIRULAGUNTZA EMATEKO**

BILDU DIRA:

Alde batetik: Itziar Ostolaza Galdos, Errenteriako Udal Hizkuntza Politika saileko zinegotzi eskuordetua.

Eta beste aldetik, Lierni Ormazabal Insausti, identifikazio agiri zenbakia [REDACTED] duena.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik, eta Alkateak eginiko eskuordetzeari jarraiki, 2729 zenbakiko Dekretuaren bidez, 2019ko ekainaren 17koa.

Bigarrenak bere izenean eta Oartzualdeako Hedabideak S.L.-ren ordezkartzan, IFZ B-20811428 duena, eta helbidea Errenteriako Irun Kalea 8-n duena

Bi alderdiek elkarri, hitzarmen hau izenpetzeko bakoitzak duen gaitasuna eta konpetentzia aitortzen diote, eta hitzartzen dituzte ondorengoak.

AZALTZEN DUTE

I. Oartzualdeako Hedabideak S.L.-k argitaratzen duen Oarso Bidasoako Hitza euskarazko astekaria eta Oarsobidasoa.hitza.info webgunea komunikabide estrategikoak dira Errenterian euskararen erabileraren normalizaziorako.

II. Errenteriako Udalak ESEPeekin aurrera egiten duen neurrian, horrelako komunikabide batek lan garrantzitsua egin dezake egiten diren jarduerak oihartzun gehiago izan dezaten eta herritarrari hobeki hel dakion.



Bertako informazioa euskara irakurterrezean eskainiz, eskualdeko herritarrak euskaraz irakurtzen ohitzea da erronka. Baina, jakina, euskaraz ekoiztea gain-kostuz beteriko jarduera da, oraindik orain, gaur egungo errealitatean. Gainera ekonomia krisiak ez ezik, komunikabideek eredu krisi bat jasaten ari dira, batik bat internetek eta teknologia berriek komunikazioan eragin duten aldaketaren ondorio.

Euskarazko komunikabideek autofinantziaziazioaren bila ari badira ere, beharrezkoak dituzte oraindik erakunde publikoen dirulaguntzak.

III. Udal Hizkuntza Politika Departamentuko zinegotzi ordezkariaren 2021/04/8ko 890 zenbakidun dekretu bidez, erabaki da Oiertzualdeako Hedabideak S.L.-ri ematea zuzeneko dirulaguntza nominatiboa, horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea.

- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1. a artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) - aurrerantzean, Ordenantza.

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Oiertzualdeako Hedabideak S.L.. erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen baldintzak eta konpromisoak dirulaguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 08/04/21eko 890 zenbakidun dekretuaren bidez emaniko diru-laguntzarekiko. Diru-laguntza horren xedea da OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK SLren proiektua finantziatzea.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 32.858,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1030.471.03.335.10. partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2021 urterako.

Zenbateko horretatik, 24,000 euro urteko ohiko jarduerari dagozkio, eta 8.858,00 euro Errenteria 700 Ekimenaren proiektuaren barruan egindako elkarrizketekin liburu bat osatzeko proiektuari.



Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2021-12-31n amaituko da.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoa hauxe da:

a) OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK SLri 32.858,00 euroko dirulaguntza ordainduko da, eta ordainketa era honetan egingo da:

- Dirulaguntza osoaren %80 (26.286,40 euro) hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik kontatzen hasita.

- Dirulaguntza osoaren %20 (6.571,60 euro) aipatu jardueren eta proiektuaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena: dirulaguntzaren entitate/pertsona onuradunak harturiko konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki dirulaguntzaren pertsona onuradunak harturiko konpromisoak honakoak dira:

a) Udalaren babesa duela egunkarian adieraztea, Udalak aurrera eramaten dituen egitasmoen inguruan informatzea, eta egitasmo horiei babesa ematea.

b) Euskararen normalizazioaren bidean, euskarazko komunikazio esparrua osatzea eta garatzea helburu duen proiektua garatuko du, eta urtean zehar egin asmo dituen egitasmoak aurkeztuko dizkio Udalari.

c) Errenteria 700 Ekimenaren barruan egindako elkarrizketekin liburu bat osatuko du eta horren 800 ale ekoitziko ditu.

d) Oarso Bidasoako Hitzak Udalaren babesa argi adieraziko du paperezko argitalpenean nahiz webgunean.

e) Proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

f) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

g) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:



- Dirulaguntza eman duen erakundeak justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeak jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

h) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

i) Hizkuntza ofizialak erabiltzearen alorreko klausulak: dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

- Idatzizkoari dagokionez:

- Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebrietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Administrazioarekin aldez aurretik adostuta.



ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezteak (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako biltzea, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindikozko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeak inprimatuak.

1) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren hitzarmena, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Seigarrena: dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak Udal Hizkuntza Politika saileko teknikari-koordinatzailearen bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2022ko otsailaren 28a baino lehen, Errenteriako Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen zerrenda bat ere aurkeztuko da. Ondoren Errenteriako Udalak zerrenda horretatik 30 fakturako lagin bat eskatdiezaioke onuradunari.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, dirulaguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Horretarako, elkarte edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria aurkeztu beharko da non jasoko diren Diruz lagundutako jarduerak edo programak finantzatzeko laguntza guztiak, bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean eta bazkideek egindako ekarpenak ere.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publikoekin



Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharra eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

Harremanak Administrazioarekin: dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Edukiak euskaraz argitaratuko ditu Hitzak, eta euskaraz eta gaztelaniaz Errenteriako Udalak.

- Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean—euskara hutsez egingo dira euskararen erabilera sustatuko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

j) Berdintasunerako klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako.

Dokumentazioa guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte

k) Ingurumenaren alorreko klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu



Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako patronatuetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo patronatuek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Errenteriako Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmena hau aldatzea ezarriko epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Errenteriako Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantza 23. eta 37. artikuluetan eta 38/2003 Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.



Hamargarrena: Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarririkoa betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamabigarrena: Araubide Juridikoa

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.


Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarririkoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek **HITZARMEN** hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den datan.



<p>UDAL HIZKUNTZA POLITIKA ZINEGOTZI DELEGATUA</p> <p>ITZIAR OSTOLAZA GALDOS - [REDACTED]</p> <p>Digitally signed by ITZIAR OSTOLAZA GALDOS - [REDACTED] Date: 2021.04.28 10:18:15 +02'00'</p>	<p>OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK S.L.</p> <p> OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK, E.M. B-20811829</p>
<p>Stua. : Itziar Ostolaza Galdós</p>	<p>Stua.: Lierni Ormazabal Insausti</p>

